

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3209

IRAGARKIA, 2025eko uztailaren 1ekoa, Deskarbonizazio zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Aramaio (Araba) eta Eskoriatza (Gipuzkoa) udal-mugartetan «Clúster de parques eólicos Subero y Durakogain» izeneko parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), «Clúster de parques eólicos Subero y Durakogain» izeneko parke eolikorako aurkeztutako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Alerion Spain SL (IFK: B67364885).
- Tartean dauden udal-mugarteak: Aramaio (Araba) eta Eskoriatza (Gipuzkoa).
- Haize-sorgailuen kopurua: 2.
- Instalatu den potentzia gordina: 9,9 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalaren UTM Koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
1	534568	4764008
2	535677	4764000
3	536123	4764218
4	537047	4764151
5	537848	4763958
6	538660	4763584
7	538729	4763403
8	538543	4763346
9	537935	4763676
10	537457	4763714
11	537056	4763583
12	536779	4763572
13	536514	4763743
14	536235	4763839
15	535775	4763616
16	535600	4763601
17	535203	4763745
18	534529	4763767

Hori guztia argitara ematen da, eta hogeiei eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den azken egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozedura baliatuta, hemen:

<https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a.

Deskarbonizazio zuzendaria,
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.